

MUSIKA-ESKOLAN PRESTAKUNTZARA JOATEGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN
DITUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua.- Objektua. Zerga-egitatea.

Prezio publiko hau Basauriko Udal Musika Eskolan emandako ikasgaiei dagokie.

2. artikulua.- Ordaintzera behartuak daudenak. Subjektu pasiboak.

Prezio publiko hauek ordaindu beharko dituzte aipatu instalazioak erabiltzeko baimena ematen zaien pertsona fisikoek.

3. artikulua.- Salbuespenak.

Euskal musika-tresnak eta kultura bultzatzeko helburuz, musika-tresna tradizionalen ikasgaien (txistua, alboka, trikitia, panderoa...) zein «euskal musika tradizionalako taldea» izeneko ikasgaien izena ematen duten ikasleak, ikasgai horiei dagokien prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

4. artikulua.- Kobrantza. Sortzapena.

Prezio publiko hau ordaintzeko obligazioa sortuko da aurkeztutako aurre-inskripzioa behin betiko onesten denean.

5. artikulua.- Osagai kuantitatiboak.

Ordenantza honekin batera modu banantezinean datorren Eranskinean jasotako tarifen araberakoak izango dira Musika Eskolako prezio publikoak.

6. Artikulua.- Kudeaketa eta likidazioa.

Kultura Atalari dagokio prezio publiko honen kudeaketa eta likidazioa egitea. Horren kopurua aurretik ordaintzea eskatuko da, aipatu instalazioak erabiltzeko onuradun izan ahal izateko.

Prezio publikoa ordainduko da dagokion zenbatekoa erabiltzaileen kontu-korrontean kargatuta. Hala egingo da plaza behin-betiko esleitu eta gero, hileru, eta dagozkien ikasgaien arabera.

Ordainketa ez bada ordenantza honetan eta aplikagarri diren gainontzeko xedapenetan ezarritako modu eta epeetan egiten, zerbitzua eten ahal izango da.

Foru Dekretuan erabaki gabe dagoen guztiari dagokionez, eta, bereziki, epeen erregimenari eta zorraren ordainketa-tokiari dagokionez, aintzat hartu beharko da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketaren Araudian eta Basauriko Udaleko Zerga Ordenantzetan aurreikusitakoa.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Erabaki hau indarrean sartzen denean, indargabetuta geratuko da Musika Eskolan parte hartzeagatiko prezio publikoa aplikatu eta arautu dezakeen beste edozein erabaki.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa

Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta indarrean jarraituko du ordenantza aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

TARIFEN ERANSKINA

ZIKLOA	IRAKASGAIK	PREZIOA (€/H)
1.	MUSIKA ETA MUGIMENDUA, 1. maila	33,00
1.	MUSIKA ETA MUGIMENDUA, 2. eta 3. maila	33,00
1.	ABESBATZA	8,00
	MUSIKA-TXANDAKATZEA	5,00
2.	MUSIKA-HIZKUNTZA	33,00
2.	MUSIKA-TRESNA	44,00
2.	TALDE-JARDUERAK	13,00
2.	ABESBATZA	8,00
3.	MUSIKA-HIZKUNTZA	33,00
3.	MUSIKA-TRESNA	44,00
3.	TALDE-JARDUERAK	13,00
3.	ABESBATZA	8,00
4.	MUSIKA-TRESNA	44,00
4.	MUSIKA-HIZKUNTZA	33,00
4.	TALDE-JARDUERAK	13,00
4.	ABESBATZA	8,00
	MUSIKOTERAPIA, banakako saioa	33,00
	MUSIKOTERAPIA, talde-saioa	13,00
	BERTAKO MUSIKA-TRESNAK	SALBUETSIA
	EUSKAL MUSIKA TRADIZIONALAREN TALDEA	SALBUETSIA
	MATRIKULA	33,00